



GURE SOLDATETAN EGINDAKO LAPURRETEN AURREAN ERREKLAMAZIORIK EDO HELEGITERIK JAR AL DAITEKE?

- 1.- 2010. urtetik %18,4 eta %21,4 tarteko galera izan dugu gure erosteko ahalmenean. 2013an berriro izoztu digute soldata
- 2.- Ez dugu onartzen gure soldataren zatia den abenduko paga ezabatzea eta berau berreskuratzea da gure aldarrikapen nagusia, borroka, bide legalak eta gure eskuan dagoen guztia egingo dugularik.
- 3.- Madrilgo zein Gasteizko gobernuak, oraingoa eta aurrekoa, dira horren ardura dutenak.
- 4.- 2013ko pagak aurreratzea hori guztia estaltzeko maniobra bat baino ez da, ez baita aipatu ere egiten ezabatutakoa berreskuratzeko inolako konpromisorik.
- 5.- Neurri horien inguruan sortutako kalteei aurre egin behar zaielakoan gaude, baita bide juridikoak erabiliz ere.

HAUEN INGURUKO GAI NAGUSIAK ONDOKO KOADROAN ARGITZEN SAIATU GARA

	ADMINISTRAZIOAren erabakiak	EGUNGO EGOERA
2012ko ABENDUKO PAGA	1.- Eusko Jaurlearitzak ordaintzea erabaki zuen. 2.- Madrilgo gobernuak jarritako helegitearen ondorioz Auzitegi Konstituzionalak ordainketa bertan behera utzi zuen. 3.- Auzitegi Konstituzionalak behin-betiko erabakia hartu behar du bost hilabeteko epean.	<ul style="list-style-type: none"> - Eusko Jaurlearitzari bere unean hartu zen erabakia betetzea eskatzen diogu. Sindikatuak paga hau lortzeko helegiteak gauzatuko ditu. - Lan-legepekoen kasuan "gatazka kolektibo" moduan bideratuko dugu. - Momentuz ez da beharrezkoa banakako erreklamazioak egitea. Behar denean, jakinaraziko dizuegu.
Uztaileko 14 egunak	Madrilgo neurriak uztailearen 15ean indarrean jarri ziren, beraz, lehen 14 egunei dagokien pagaren zatia jaso beharko genuke, Auzitegi Konstituzionalaren erabakia edozein izanda ere.	<ul style="list-style-type: none"> - Sindikatuak pagaren zati hau eskatzeko helegite orokorra egingo du. - Momentuz ez da beharrezkoa banakako erreklamazioak egitea. Behar denean, jakinaraziko dizuegu.

Greba deskontuak	- 2012ko udara ondoren egindako greba egunengatik egindako deskontuetan pagari dagokion zatia deskontatu dute.	- Banakako erreklamazioa egin daitezke. Epea lau urtekoa da funtzionarioentzat eta urtebetekoa lan-legepekoentzat.
Lan-legepeko irakasleak	- Euren nominaren antolaketan aparteko pagak funtzionarioena baino handiagoak dira. Ondorioz, urteko soldatan funtzionarioek baino gutxiago jaso dute, euren hitzarmenak esaten duenaren kontra.	- Urtebeteko epea dago norberari egokitutako erreklamazioak egiteko. Gurekin harremanetan jarri.
Ordezkoen eta kontratua amaitu dutenen finikitoak	1.- Azaroaren amaiera arte pagaren zati proportzionala jaso dute finikitoetan. 2.- Eusko Jaurlaritzak publikoki esan du aurreratutako parte itzuli beharko dutela. Auzitegi Konstituzionalak azken erabakia hartu arte atzeratu du Eusko Jaurlaritzak kontu hau.	- Neurri hau gauzatzen dutenean (agindua, zirkularra, deskontu zuzena ...) ikusiko dugu zein bidetik jo, modu orokorrean edota banakako erreklamazioen bitartez.

Gogorazi nahi dizuegu Auzitegi Konstituzionalak hartu behar duela abenduko ordainsariari buruzko behin betiko erabakia. Horrek baldintza ditzake banakako erreklamazioen edota helegiteen ibilbideak.

	ADMINISTRAZIOAren erabakiak	EGUNGO EGOERA
2013ko PAGAK	1.- Eusko Jaurlaritzak erabaki zuen ekaineko eta abenduko pagak urtarrilera eta uztaileira aurreratzea. 2. - Ordezkoek, bakantea duten batzuek barne, ez dute jaso aurrerapena eta ez zaie ordaindu EJ-ren dekretuak hitzez hitz dioenaren aurka ("... proportzioan dagokien zatia ordainduko zaie ...").	- Aurrerapena eskatuz erreklamazioa aurkeztu daiteke. Ereduak eskuragarri daude gure egoitzetan eta web orrian.

Oharra: Idazki honek izaera informatiboa du; hemen aipatutako egoerek edozein unetan aldaketak izan ditzakete.

**Gure soldata gure eskubidea da!!
Adierazi zure haserrea!!
Adi mobilizazioei!!**

